



daudela. Halaber, prentsak programatu dugunak duen balioa aitortu du”. Ildo horretan, zuzendariak etorkizunari begira dituen nahiak azaldu ditu: “Nire ustez, jaialdiak datozen urteetan izango duen identitatea markatzen duten erabakiak hartu ditugu aurten”.

Edizio honetan, gainera, Jaialdiaren eskaintza pedagogikoa eta prestakuntza-mailakoa finkatu egin da honako hauen bitartez: Arte Dramatikoko Eskolen Topaketa Tafallan; Alfonso Zurrok emandako “Creación e interpretación en el personaje” tailerra; Zurro bera eta Mikel Zuza historialaria protagonistak izan dituzten topaketak; edo Nafarroako In Extremis konpainiak “La prueba” proiektuarekin garatutako egoitza artistikoa.